

HERRI-DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA
Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 12an

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki hauek hartu ditu, besteak beste:

2020ko Ekarpenen likidazioa

Pandemiak erabat gainditu ditu 2019ko urrian egindako aurreikuspenak, ekonomian izan duen eragina oso handia izan baita. Zerga-bilketaren aurreikuspenen bat-bateko jaitiera ez da gertatu soilik Alarma Egoeraren adierazpenak, biztanleriaren konfinamenduak eta mugikortasunaren murrizketek jarduera ekonomikoan inpaktu handia izan dutelako, euskal erakundeek likidezia txertatzeko eta zergen ordainketa ahalik eta gehien errazteko zerga-arloko premiazko neurriak hartu zituztelako ere gertatu da.

2020ko abuztuko bilketa metatuaren datuetan eta urteko azken lauhilekorako egindako proiektioetan oinarrituta, joan den urriaren 15ean, HDEKK diru-bilketaren itxierako 13.411,6M/€-ko aurreikuspena onartu zuen, hau da, 2019ko datuak baino % 13,3 gutxiago.

Azkenik, Foru Aldundien zerga itunduen bilketa finkatua 13.949,3M/€-koa izan da 2020an, hau da, 2019an baino 1.520,3 M/€ gutxiago, eta urte arteko beherakada % 9,8koa izan da. Horrela, izandako diru-bilketak 537,7 M/€-tan gainditu du urriaren 15ean onartutako itxierako aurreikuspena.

ZERGA ITUNDUEN DIRU-BILKETA 2020KO ITXIERA RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. CIERRE 2020 (€)				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL / GUZTIRA
IRPF / PFEZ	859.541.277	2.875.264.847	1.915.418.428	5.650.224.552
I. SOCIEDADES / SOZIOETATEEN g/Z	171.026.790	587.003.922	284.517.547	1.042.548.259
IVA / BEZ	840.144.522	2.602.021.049	1.721.599.162	5.163.764.733
I. ESPECIALES FABRICAC. e IE DE ELECTRIC. FABRIK. Z. BEREZIAK eta ELEKTRIZ./ZERGA	215.905.367	668.682.942	442.426.856	1.327.015.165
RESTO TRIBUTOS / GAINERAKO ZERGAK	105.698.461	389.083.280	270.915.971	765.697.712
TOTAL / GUZTIRA	2.192.316.417	7.122.056.040	4.634.877.964	13.949.250.421

Estatuari 2020an ordaindutako kupoari dagokionez, zenbatekoa 1.038M/€-koa izan da. Zifra horrek hauek hartzen ditu barne: 2018ko likidazioaren Estatuaren aldeko 781.594 euroko doikuntza bat; 2019ko likidazioa, kupoaren, finantza-konpentsazioen eta enplegu-politika aktiboen finantzaketaren kontzeptuengatik, Estatuaren aldeko 51M/€-ko saldo garbiarekin; eta kontzeptu berengatik 2020ari dagozkion behin-behineko hiru epeak, 986,5M/€-koak, guztira.

Horrenbestez, Foru Aldundiek 9.217,8 M/€ ordaindu behar dizkiote Eusko Jaurlaritzari 2020ko ekitaldiko ekarpenengatik, hasierako aurrekontuan aurreikusitakoa baino 1.255,2 M/€ gutxiago.

2020ko LIKIDAZIOA / LIQUIDACIÓN 2020 (€)				
2020AN FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES AL GOBIERNO VASCO EN 2020				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL
Ekarpen koefizientea 2020 Coeficiente aportación 2020	%16,27	%50,39	%33,34	%100,00
EKARPENAK 2020 APORTACIONES 2020	1.499.738.062	4.644.855.620	3.073.218.623	9.217.812.305

2020ko Egokitzapenerako Funts Orokorraren likidazioa

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak 2020ko Egokitzapenerako Funts Orokorraren 56,8 M/€-ko likidazioa erabaki du, eta Arabara bideratuko da osorik. Horrela, haren bilketa-koefizientea koefiziente horizontalaren % 99,00ra helduko da.

EGOKITZAPENERAKO FUNTS OROKORRA 2020 FONDO GENERAL DE AJUSTE 2020 (€)		
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	%70,04	39.786.218
FORU ALDUNDIAK DIPUTACIONES FORALES	%29,96	17.018.776
Araba / Álava		2.768.955
Bizkaia		8.575.761
Gipuzkoa		5.674.060
GUZTIRA / TOTAL		56.804.994

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 12an